

Urteko 17. - Igandea C

137. Salmoa

L.a. 113 / S.a. 29

(5+4 / 5+4)

Jau-na, nik oi-hu e-gi-te-an, be-ti dau-ta-zu es-ku e-man.

**Jauna, nik oi-hu egitean,
Beti dautazu esku eman.**

Eskerrak zuri, eskerrak, Jauna, bihotz osoz,
Otoizka entzun nauzulakotz.
Aingeruak so,zaitut zu kantuz aipatuko,
Tenplo alderat belauniko.

Eskerrak zuri on baitzare, on eta zuzen:
Zuk hitza funski atxikitzen.
Nik zuri oi-hu egin orduko, zuk ni entzun:
Zer indar gaitzaz bete nauzun.

Zoin gora Jauna: maitatzen ditu apalduak,
Urrundik uzten hanpatuak.
Oren beltzetan nabilanean, zu nerekin:
Etsaiek deusik ezin egin.

Zure eskua luzatuz nauzu beti zaintzen:
Zu, behar deno, zain egonen.
Zuk duzu, Jauna, betiereko bihotz ona,
Sekulan ez utz hasi lana.

Tout droit propriété de l'Abbaye de Belloc
Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzedor O.S.B. ; Aireta : Gabriel Lerchundi O.S.B.